



Arau-aipamenak

1. 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 7. artikulua xedatzen duenez, diru-laguntzak ezarri aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko bat egin behar da, eta bertan zehaztu behar da zer helburu eta ondorio lortu nahi diren haren aplikazioaren bidez, zer epe behar den horretarako, zer kostu aurrez ikusten diren eta zer finantziazio-iturri dauden.
2. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bitartez onaturiko Diru-laguntzen Erregelamenduaren 7. artikulua dioen legez, diru-laguntzen plan estrategikoak tresna egokiak dira onura publikoko edo interes sozialeko jardura bat sustatzea eta helburu publiko bat bultzatzea xede duten politika publikoen plangintza egiteko, eta koherentzia gorde behar dute Aurrekontuei buruzko 2006eko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren Testu Bateginaren 36. artikuluan zehazten diren urte anitzeko aurrekontu-programa eta -egoerekin (2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bitartez onetsi zen testu bategin hori). Hala, bada, halako plan estrategikoen beren iraupenarekin bat datozen aurreikuspenak jaso behar dituzte, salbu eta, arrazoi ekonomikoengatik edo aurrekontu edo prozedurarekin lotutako arrazoiengatik, beste iraupen bat ezartzea komeni denean.
3. Foru sail bakoitzari dagokio bere plan estrategikoa prestatzea, eta bertan jaso behar ditu bai sailak berak ematen dituen diru-laguntzak, bai sailari atxikitako organoek zein gainerako erakunde publikoek ematen dituztenak (Diru-laguntzen Erregelamendua, 8.1 art.).
4. Plan bakoitzaren eduki zehatza berak biltzen dituen diru-laguntza lerroen baitan dago, baina ezin da Diru-laguntzen Erregelamenduaren 9. artikuluan diseinaturiko egituratik haratago joan. Zehazki esateko, atal hauek izan behar ditu:
 - 1) Helburu estrategikoak: planaren indarraldian zehar erakundeek ekintzarekin lortu nahi diren efektua eta eragina deskribatzen dituzte, eta kasuan kasuko aurrekontu-programetan zehaztutako helburuei lotuta egon behar dute.
 - 2) Jarduteko plana zehazten duten diru-laguntza lerroak. Diru-laguntza lerro bakoitzean, honako alderdi hauek zehaztu behar dira:
 - a) Laguntzen eragina izango duten arloak eta laguntzen jomuga izango diren sektoreak.
 - b) Laguntzak aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta efektuak.
 - c) Helburu-efektuok lortzeko behar den epea.
 - d) Haien lortzeko aurrez ikus daitezkeen kostuak, eta kostu horien finantzabideak.
 - e) Ekintza-plana, non zehaztu behar baitira planean identifikatutako diru-laguntza lerroak praktikan jartzeko mekanismoak. Gainera, bertan mugatuko dira, era berean, Diru-laguntzen Arauaren 8. artikuluan aipatzen diren diru-laguntzak

emateko oinarri arautzaileek izan behar dituzten oinarritzko lerroak eta ekintza-plana lantzeko egutegia.

- 3) Ebaluazio-sistema: diru-laguntzen lerro bakoitza ebaluatzeko sistema. Horretarako, hainbat adierazle finkatu behar dira, ezagutu ahal izateko zein den unean uneko egoera eta zein aurrerapen lortu diren diru-laguntza bakoitzaren helburuak betetzeari dagokionez.
- 4) Ebaluazioaren emaitzak: aurreko plan estrategikoen ebaluazioaren emaitzak.
5. Plan estrategikoak betearazteko ardura duten foru diputatuek onetsi behar dituzte plan estrategikoak, eta Ogasun eta Finantza Sailari helarazi behar zaizkio, haien berri izan dezan (Diru-laguntzen Erregelamendua, 10. art.).
6. Planak urtero eguneratu behar dira, eskuragarri dagoen informazio esanguratsuen arabera (Diru-laguntzen Erregelamendua, 11.1 art.).
7. Foru sail bakoitzak jarraipen-txosten bat landu behar du, non ebaluatuko duen ea plana zenbateraino bete den eta ea zein izan diren planaren aplikazioak aurrekontuan zein finantza-egoeran izan dituen efektuak eta ondorioak (Diru-laguntzen Erregelamendua, 11.2 art.).
8. Txosten hori, plan eguneratuarekin batera, Ogasun eta Finantza Sailari bidali behar zaio, urte anitzeko aurrekontu-egoerak lantzeko edo eguneratzeko ezartzen diren epeetan, eta horretarako ezarritako prozedurak erabiliz (Diru-laguntzen Erregelamendua, 11.3 art.).
9. Diru-laguntzen Erregelamenduaren 11.4 artikulua, oinarritzat harturik Diru-laguntzen Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen dena, aukera ematen du Ogasun eta Finantza Sailak plan estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egin dezan, hala sailaren beraren ekimenez nola plan estrategikoak kudeatzen dituzten organoen eskariz.

Hala, bada, eta diru-laguntzen plan estrategikoa prestatzen laguntzeko, halako planak egiteko egitura eta edukiak proposatzen dira jarraian, gida-eredu batean. Gida-eredu horretan, letra etzanez eta kakotx artean jasotzen diren edukiak hitzez hitz gehitu dakizkioke sail bakoitzaren plan estrategikoari; letra arruntez idatzita dagoena, berriz, plana egiteko lagungarri izan daitezkeen oharrak dira.